



EUSKADIKO ETXEBIZITZA FOROA

Euskadiko Etxebizitza Foroak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailordetzak sortzen du, gizarte talde batzuk hala eskatuta. Foro honen helburua *“etxebizitza politiken zehaztapenetan euskal gizarte mugimenduak eragiteko bidea izateko gunea”* da.

Foroaren hastapenak 2006ko udan izandako bileran gertatu ziren. Bertan funtzionamendurako arauak eta baita horren egutegia akordatzen dira, hamar bat gizarte taldek parte hartu zutelarik. Aldez aurretik, hainbat esparrutako gizarte talde ezberdinek gonbidapen formala jaso zuten: sindikatuak, talde ekologistak, gazte taldeak, etorkinekin lan egiten dutenak, kontsumitzaileen elkarteak, auzo elkarteak, giza bazterketaren aurkako plataformak eta etxebizitza eskubidearen aldeko taldeak, hurrenez hurren.

2006-2007 urteetarako eginkizunak balizko Etxebizitza Euskal Legeak jaso beharko lituzkeen edukien gaineko gai zerrenda batean zehaztu ziren. Handik aurrera bai Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta baita giza taldeak gure ideiak eta analisiak aurkezten hasi ginen, ideiak elkartrukatuz, eztabaidak sortuz eta etxebizitzaren inguruko euskal politikari buruzko alde batzuetan sakonduz, akordioetara heltzeko beharrik izan gabe.

Pasa den uztailean izandako bileran Etxebizitza Sailordetzak Etxebizitza Duina Izateko Herritarren Eskubidea Bermatzeko Legearen aurreproiektua aurkeztu zuen. Bileran bertan Jaurlaritzako ordezkariak aipaturiko testuan euren ikuspegitik foroak egindako ekarpenak zeintzuk izan ziren azaldu zuten. Horren ondoren, hemen biltzen garen taldeok Legearen Aurreproiektuaren gainean gure ekarpenak plazaratu genituen, markaturiko epeetan.

Orain arte ospatu izan diren hamar bat bileretan izandako eztabaidek argi erakutsi dute gizarte taldeen artean adostasun zabala dagoela, Etxebizitza Eskubidea Bermatzeko Legearen oinarritzko edukiei buruzkoa.

Gure ustez, aipatutako legeak hurrengo alde hauek jaso eta babestu beharko lituzke:

1. Etxebizitza Eskubide Subjektiboaren aintzat hartzea, berehalakoa, norbanakoa eta baldintzarik gabekoa, EAEn egoiliar diren pertsona ororentzako. Eskubide hau Administrazio Publikoek bermatu beharko lukete eta auzitegien babesa izan beharko luke.
2. Administrazioek eskubide hau bermatzeko beharra dute alokairuzko etxebizitza parke publikoa sortuz. Ordaindu beharreko errentak pertsonak duten ordaintzeko gaitasunaren arabera izango lirarteke (diru sarreraren %30 inoiz ez gaindituz) eta pertsonak euren bizi-egitasmoan zehar dituzten behar eta irudikapenei egokituriko tipologiak jasoko lituzke.
3. Eskubide hori gauzatzeko bidean hutsik dauden etxebizitzaren erabilera benetako lehentasuna izan behar da. Helburu horren harira, horiek merkaturatzeko egun indarrean dauden neurri eta egitasmoen gain, hutsik dauden etxebizitzak zergapetzeko politikak abian jarri behar dira, aipatu etxeak gure gizarteak jasan ezin dituen luxua baitira.

4. Azken garaian gure lurak jasan dituen hirigintzazko gehikuntzaren aurrean, etxebizitza berriak eraikitzeko asmoz lurzoru berriak kolonizatzea etxebizitza arazoaren konponbidea ez dela uste dugu. Aldiz, hutsik eta azpierzabiltza dauden etxebizitzak mobilizatzearekin batera, hondatuta dauden landa eta hiri eremuen birgaitze eta berreskuratze lana administrazio ezberdinen lehentasuna izan behar da.
5. Etxebizitza politikak erakunde ezberdinen arteko koordinazio maila altua bereganatu behar du, alderdien arteko eta eskudunen inguruko arazoak gaindituz. Administrazio Publiko guztiek etorkizuneko legearen xedapen eta filosofia bete beharko lukete.
6. Etxebizitza politiken zehaztapenak gizartearen parte hartzean oinarritu behar dira. Etxebizitza plan autonomikoek, udal mailakoek eta baita sortuko diren beste guztiek, gizarte zibilak adierazitako behar eta borondatearen euren oinarria izango dute, borondate horrek horietan eragina izango duelarik.
7. Pertsona orok dituen etxebizitza izateko, aldatzeko eta birgaitzeko beharrak beren osotasunean erantzuteko Etxebizitza Euskal Zerbitzu Publikoa indarrean jarri behar da.
8. Babes erregimena duten etxebizitza mota guztiek (Etxebizitza Sozialak, BOE, Salneurri Tasatuen Etxebizitza Autonomikoak eta Udaletakoak) EAEko lurralde osoan arautze komuna izan behar dute. Bidezkoena eta gizarte ikuspegitik hobereana delako alokairuzko erregimena defendatzen dugu. Hala ere, azalera-eskubidea erregimenean hainbat etxebizitza esleituko diren bitartean, hauek gizarte osoko ondarea direla argi eta garbi geratu behar da, eta horren ondorioz, hurrengo arau hauek jarraitu behar dute:
 - a. Euren esleipena gardena izan behar da eta berme-sistema baten bidez gauzatu beharra dago. Une honetan, dauden

aukerak ikusita, uste dugu Zozketa erarik egokiena dela eta horregatik horixe orokortzearen aldekoak gara.

- b. Euren esleipena Alokairuan edo Azalera-Eskubidean gauzatu behar da, inoiz ez jabetza osoan.
- c. Babes etxebizitza bezala era iraunkorren kalifikatuak izatea, hau da, merkatu librean saltzeko aukera inoiz ez baimentzea.
- d. Ikuskaritza eta zehapen publikoko berme-sistema iraunkorren izatea, horrela legearen aurkako erabilpenak ekidituz.
- e. Administrazioa Publikoak lehentasunez erosteko eta atzera-eskuratze eskubidea izatea.
- f. Adjudikaziodunak bigarren etxebizitza jabetza erregimenean eskuratuz gero, Derrigorrezko Salmentaren beharra aplikatuko da.

9. Etxebizitza baten beharra dituzten Gizarte Larrialdi Egoeren aurrean, Administrazio Publikoen aldetik erantzun azkar eta irmoa eman behar da. Horretarako koordinaziorako mekanismoak azkar bezain eginkorrak izan behar daude.

10. Etxebizitza eskubidearen urraketa testuinguru honetan, zenbait giza taldek muturreko esplotazioa eta euren gutxieneko gisa-duintasunean bortxaketa egoerak pairatzen dituzte. Gure gizartean ahulenak diren pertsonen alokairuaren merkatu pribatuan nozitzen dituzten gehiegikeriak (gain-okupazioa, bereizkeria...) irmoki eragotzi behar dira.

Legebiltzarrera bidaltzekotan dagoen aurreproiektua Lege Aurreproiektua izateko tramiteak betetzen diren une honetan, Euskadiko Etxebizitza Foroan gauden gizarte taldeok honako hau publikoki adierazi nahi dugu:

- I. Positiboki baloratzen ditugu gizarte eragileen eta Etxebizitza Sailordetzaren arteko Foro honen martxan jartzea eta orain arte izan dugun lan-prozesua. Izan ditugun akordio eta akordio-ezaz haratago, elkarlanerako gune honen izate bera positiboa da eta beste lege eta proiektu batzuetan garatzeko esperientzia baliagarria dela uste dugu.**

- II. Jaurlaritzak aurkeztutako aurreproiektuak badu, legebiltzarreko eztabaidan bere horretan jasotzen bada, etxebizitza eskubidearen bermea gauzatzeko bidean zenbait aurrerapauso. Hala ere, testu honek ez ditu betetzen adierazpen hau sinatzen dugun gizarte taldeen jomuga guztiak.**

- III. Premiazkoa eta beharrezkoa da aldez aurretik aipaturiko puntuak jasoko dituen Etxebizitza Euskal Legea onartzea. Hori dela-eta, Lege Proiektu bezala izendatu eta Legebiltzarrera bidaltzekotan gauden une honetan, Legearen Aurreproiektuan jasotzen diren xedapenetan gerta daitekeen edozein murrizketa salatzeaz gain, foroan gauden gizarte taldeek defendatzen ditugun planteamenduak behin betiko legean jasotzeko ahalegina egingo dugu.**

2007ko azaroa

SINATZEN DUGUN TALDEOK

E.G.K. (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua)

E.H.N.E. Konfederazioa

E.K.E. (Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa – Federación Consumidores de Euskadi)

Euskadiko Langile Komisioak - CC.OO. Euskadi

Ezker Gogoa

Gazteleku

Harresiak Apurtuz

J.O.C. (Juventud Obrera Cristiana)

Ke Pasa Kon La Kasa

P.V.D. (Plataforma por una Vivienda Digna)

Foro honekin harremanetan jartzeko: info@etxebizhitza.com